

# Eskolako Agenda 21

## Azpeitiko "Eskolako Agenda 21"



## Eskolako Agenda 21

azken txostena

Azpeitia, 2005eko uztaila

## SARRERA

---

ESKOLAKO AGENDA 21, ikastetxeak garapen iraunkorrerantz jotzeko lan-tresna oso baliagarria gerta daiteke. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-komunitateko agente guztiak prozesu horretan inplikatzeko eta udal administrazioekin elkarlan jarraia burutzea. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek, konpromiso sendoa hartua dute eta mantentzen dute garapen jasangarriarekin lotutako programen zabalkundea eta aplikazioa bultzatzeko, bai material ezberdinen prestaketan, bai dirulaguntzen banaketaren bidez eta baita aholkularitza eta jarraipenean ere. Udal mailan hasitako bidea asko aberastu daiteke orain ikastetxeetan indartu nahi den programa honekin.

Azpeitiak eta Azkoitiak hasieratik egin zuten Tokiko Agenda 21aren prozesuaren aldeko apustua eta Eskolako Agenda 21aren aplikazioan ere aitzindariak izan dira. Prozesuari, 2003/2004 ikasturtean eman zitzaion hasera Energiaren gaia landuz eta 2004/2005 ikasturtean berriz HONDAKINEN gaia izan zuten aztergai herri hiru ikastetxek: Karmelo Etxegarai Ikastola, Urola Ikastola eta Iraurgi ikastetxea.

Prozesu osoan zehar erabili den metodologia Eskolako Agenda 21ak dituen oinarritzko hiru osagaiak kontuan izatea garrantzitsua da. Hala nola:

- Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren kudeaketa iraunkorra
- Curriculumaren berrikuntza
- Komunitatearen parte-hartzea

“INGURUGIRO ETXEA MUSEOA”-k prozesu honetako hirugarren atala, hau da, **komunitatearen parte-hartzearen garapena** landu du, zeregin hauetan gogotsu eta ilusio handiz parte hartu duelarik.

## METODOLOGIA ETA HELBURU OROKORRAK

---

Ingurumen Hezkuntza arloan adostutako helburutaz gain, Agenda 21aren helburu orokorrak ere hontuan hartu dira partaidetaren ardatzari lehentasuna emanez.

### Partaidetza

- **Tokiko Agenda 21ean parte hartu** eta gizarte- eta lurralde-ingurunean integratzea.
- Hezkuntza-komunitateko herriko partaide guztien arteko koordinazio-mekanismoak sendotzea
- Ikastetxeko eta ingurunekeo gizarteari eta ingurumenari dagozkien gaiak identifikatu, aztertu eta alternatibak proposatzea, **foroetan ezagutaraztea** eta ingurunearen erabilera jasangarria lortzeko prozesuak abiaraztea.

- Ikasleak bere ikastetxeko eta beren ingurumenaren kalitatean eragina duten kontuetan **parte hartu, lagundu, erabakiak hartu eta inplikatzen ohitzea.**

### Ingurumen Hezkuntza

- Sentsibilizatu eta kontzientziazteko, hondakinen arazoaren eta kontsumo arrazionalaren inguruko informazioak zabaldu
- Ikastetxeko komunitatea inplikatuz hondakinen ekoizpena murriztu eta birziklatzeko gaikako bilketa ohiko bihurtzu, eta baliabideak ahal den gehiena berrerabiltzeko ahaleginak egin ditza
- Hondakinen arazoari aurre egiteko jokabide-kode bat hitzartu eta martxan jarri
- Ikastetxeek egindako ahaleginak, gurasoei eta herrian zabaladu, horretan jarduteko gonbitea luzatuz.

### HARTZAILEAK

2004/2005 IKASTURTEAN Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu duten ikastetxeak eta zikloak honako hauek izan dira:

- Iraurgi ikastetxeko LH 2. Eta 3.zikloak eta DBHko 1go zikloa
- Karmelo Etxegarai ikastolako 3. Zikloa
- Urola Ikastolako DBHko lehen zikloa

IKASTETXEA/ZIKLOA	LH2	LH3	DBH1
Iraurgi Ikastetxea	119	133	159
Karmelo Etxegarai Ikastola	-	80	-
Urola Ikastola	-	-	118
<b>GUZTIRA ZIKLOKA</b>	<b>119</b>	<b>213</b>	<b>277</b>
<b>KOPURU TOTALA</b>	<b>609 IKASLE</b>		

### METODOLOGIA

Eskolako Agenda 21ak, ingurumen hurbileko arazoak ezagutu eta ulertzea ahalbidetuko duen hezkuntza-praktika bat izan nahi du.

Proiektu honetan sartzeak, metodologia mailan, Curriculumaren berrikuntza suposatzen du: ingurumen hezkuntza lantzea, parte-hartzeko metodoak bultzatze, ikuspegi globaleko proiektuak aurrera eramatea, eta baita, ingurumenaen erabilera didaktikoa egitea ere (ibilaldiak, inkestak, elkarrizketa,...)

Metologia, ikasleen ezagutzetatik abiatzen da, informazio iturri desberdinak erabiltzen ditu, ikasleen arteko elkar komunikazioa, lana eta talde lan kooperatiboa sustatzen du, eztabaida ahalbideratzen du eta baita ikasleen arteko harremanak gehitu eta indartu ere egiten ditu.

## IHARDUERAK ETA EKINTZAK

Aipatu bezala, Eskolako Agenda 21ak dituen oinarrizko hiru osagaiak kontuan izan dira eta hirugarren atalari dagokionena, hau da herri-komunitatean partaidetza sustatzeko asmoz, ziklo guztiei zuzendutako ekintzak planteatu ziren, beste bi atalak ikastetxeen eskuetan geratu direlarik.

### Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa

*Ekintza: Ibaiaren azterketa*

*Bisita: Lapatx Zabortegia*

### Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa

*Ekintzak: Herriko Zabor bilketaren azterketa eta Galdetegia Herritarrei*

*Bisita: Lapatx Zabortegia eta Urnietako Sailkapen Planta*

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

*Ekintzak: Herriko diagnosia eta herritarrei galdeketa*

*Bisita: Lapatx Zabortegia eta Urnietako Sailkapen Planta*

## PARTAIDETZA

Aukeratu den metodologian **ikasleen parte hartzeari lehentasuna** eman zaio. Eskaini diren tresnak, aurretik ikastetxean programaturiko ekintzak, buruturiko azterketak, lortutako emaitzak eta hobekuntza proposamenak kaleratzea erraztu duelakoan gaude. Tresna hauek ere, ikastetxean egindako lana kaleratzeko euskarri baliagarriak izan dira.

Komunikazio prozesurako bultzatutako tresnak:

- **Udal Foroa:** herriko arazoetan inplikatur, hobekuntza proposamenak aldarrikatzeko
- **Buletina:** gurasoei zein herritarrei informazioa banatzeko

Azkoitiko eta Azpeitiko Eskolako Agenda 21en parte hartu duten **ikastetxeen arteko koordinazioa** mantentzea ere oso garrantzitsua izan da eta prozesu osoan zehar beraien arteko **adostasuna** izatea bultzatzen saiatu gara. Lan honetan

Ingurugiro Etxea Museoko monitorak eta Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak-eko hezitzaileek lan bateratua egin dute.

## UDAL-FOROA

---

### Helburuak:

- Ikasleak, komunitate bateko partaide sentiaraztea eta tokiko administrazioarekin harremanak bultzatzea, Tokiko Agenda 21ean aktiboki parte hartuz.
- Ikasleek "Hondakinak" gai nagusitzat hartuta, herriko ingurumen eta giza-diagnostikoak burutzea, hobekuntza-proposamenak egiten ohitzea eta udaletxean hauek aldarrikatzea.
- Talde-lana eta elkarlana bultzatzea.

### Edukia:

Bi foro gauzatu dira: bat eskolartekoa "Ingurugiro Etxea Museoan" 2005eko apirilaren 14an eta bestea Udalbatzaren aurrean, apirilaren 21ean.

### NORBERAK BETETZEKO KONPROMISOAK

- Paper birziklatua erabili
- Materiala ondo aprobetxatu: orria bi aldetatik erabili, papera jolaserako ez erabili,...
- Gauzak erosi baino lehen pentsatu behar al ditudan, alferrik ez erosi
- Kontsumoa murriztu, ahal dudana berrerabili eta gero birziklatu
- Hondakinak ondo sailkatu
- Hondakin bakoitza dagokion edukiontzietara bota eta ez ontziaren alboan laga
- Zaborra ez bota lurrera, ibaira,....
- Olioia ez bota arraskatik behera
- Paperaren gehiegizko kontsumoaren ondorioetaz jabetu
- Mukizapiak erabili paperezkoen ordez
- Bilduki gutxiago dituzten gauzak erosi
- Erabili eta bota motako gauza gutxiago erosi
- Produktu kutsakorrik ez erosi
- Erosketak egiterakoan poltsak etxetik eraman

### ESKOLA MAILAKO PROPOSAMENAK:

- Ikasleei erakutsi zeintzu diren paperaren gehiegizko kontsumoaren ondorioak
- Paper birziklatuaren kontsumoa bultzatu
- Fotokopia gutxiago atera, beharrezkoak bakarrik
- Materiala ondo aprobetxatu

- Erosi aurretik pentsatu beharrezkoa den ala ez
- Produktu kutsakorrik ez erosi
- Ikasleei erakutsi hondakinak zein edukiontzitara bota behar diren
- Patioan, hondakinak bereizteko zakarrontzi desberdinak jarri (Papera, plastikoa, aluminio papera, bestelako zaborra)
- Ikasgela gehienetan eta irakasle geletan papera biltzeko edukiontziak badaude ere, falta direnak jartzea
- Ontzietan plastikozko poltsak jarri garbiagoak mantentzeko
- Tinta kartutxoak eta tonerrak birziklatzeko jasotzea. Etxekoak ere eskolan jasotzea
- Eskolako ordenagailu eta inprimagailu zaharrak berrerabiltzea

Udalbatzan aurkeztu zituzten HERRI MAILAKO PROPOSAMENAK honako hauek izan ziren:

- Zakarrontzi bereiztuak (papera eta plastikoa) plaza, parke, goxoki denda eta ikastetxe inguruan ipintzea
- Edukiontzi gris egokiak ipintzea: hankarekin edo palanka bidez irekitzen direnak
- Etxe guztietan 3 ontzi izateko laguntzak ematea (Damaso Azkue auzoan bezala)
- Urtean behin eta guztion artean eta Udalaren laguntzarekin zaborra jaso eta ibaia garbitzea.
- Paper birziklatua erbili eta bi aldetatik idaztea. Txostenak, festetako programak, aldizkariak, propaganda eta honelakoak inprimatzean, ale kpuru zehatza izatea eta ahal den gutunazal gutxien erabiltzea.
- Industri gunetan eta ikastetxe inguruan edukiontzi urdina jartzea, bulegoetan paper asko sortzen da-eta (Landeta, Jose de Artetxe eta Euskal Herria)
- Herriko zenbait lekutan, Landeta auzoan, baserri gunetan, hain zuzen, mota guztietako edukiontzi gehiago jartzea eta modu egokian, hau da, zulo handiagoak, errepidetik urrunago eta zaborra botatzeko nahiko tarterekin; eta hauek garbi mantentzea
- Herritarrak kontzientziazteko Lapatxera, Sailkapen plantara... bisitaldiak antolatzea
- Animalien jabeei hauek sortzen dituzten hondakinak jasoaraztea
- Edukiontziak lurperatzea
- Udaletxeko garbitzaileek garbitzen dituzten eraikuntzetan sailkatuta dauden hondakinak dagozkien ontzira botatzea eta horretarako Udalak erraztasunak ematea (lantresna egokiak, behar duten informazioa...)
- Hondakin organikoekin konposta egiteko tokiak jartzea
- Festetan eta kirol ekitaldietan zabor gahiago sortzen denez, neurri bereziak hartzea
- Lapatxera kartoi gutxiago iristeko, kartoiak biltzea berezia egunerokoa izatea eta birziklatzera eramatea
- Olio-bilketa era erosoagoan egitea, hau da, biltzea egiteko egun eta toki gehiago jartzeaz gain, biltzea hori buruzko informazioa zabaltzea
- Pilen edukiontzi gehiago eta sendoagoak jartzea

- Bigarren eskuko azokak bultzatzea eta alferrikako bilgarriak erabiltzen dituzten enpresei zerga gehiago kobratzea
- Herritarrei ondoko gaien inguruko informazioa zabaltzea: zaborrek sortzen duten kutsadura, bereziki pilek; murriztu, berrerabili eta birziklatzearen garrantzia; paer birziklatua erabiltzearen garrantzia; paperezko publizitatea eta erabili eta botatzeko produktuak gutxiago erabiltzearen beharra; garbigunea; kartoi bilketa,...
- Informazioa era honetara zabaltzea: buzoneatuz, zabor poltsetan marrazkiak edo mezuak ipiniz eta azkenik, telebista, irratia, egunkariak erabiliz. Informazioa behin eta berriro zabaldu
- Gaizki botatzen dutenei abisua ematea, gaiziki sarritan botatzen badute berriz, isuna jartzea

#### **Prozedura:**

Bilera baten bidez, ikastetxeei foroa burutzeko jarraitu beharreko prozedura eta informazio guztia eman zitzaie eta foro honi begira, ikastetxe bakoitzean antzemandako arazoan azterketa antolatu. Herriko ikastetxeen arteko koordinazioa bermatu da bileren bidez.

Hurrengo bilera batean azkerketen emaitzak jaso, fororako ikastetxe bakoitzeko ikasle-ordezkaritza izendatu eta parte-hartzeko modua azaldu eta aldarrikapenak landu dugu. Hurrengo pausua, Udalean ikasleek utzi beharreko txosten idatzia prestatu zen.

Prozesu honen funtzesko xedea, Udalak Foroan luzatutako aldarrikapenei aurre egitea eta erantzutea da, bai gauzatuko direnak eta bai egingo ez direnen zergatiak azalduz.

Ingurugiro Etxeko monitora baten esku geratu zen moderatzaile lana Foroan

## **BULETINA**

---

#### **Helburuak:**

- Gurasoak, ikasleek egindako lanaren xehetasunak ezagutzea.
- Ikastalde bakoitzak, beste ikastetxeetakoek egindakoaren berri izatea.
- Idatziak eta argazkiak erabiliz euskarri erakargarri bat sortzea.

#### **Edukia:**

Buletinak aldizkari itxura eman zaie eta 8 orrialdetan zehar hizkuntz bakarrean, ikastetxeetan aurrera jarraitu den prozesuari buruzko informazio guztia azaldu da. Bertan, Azpeitiko Eskolako Agenda 21aren aurkezpena (helburuak, partaideak...), Udala

foroa eta ikastetxe bakoitzak burututako ekintza plana adierazten da, prozesuan zehar ateratako argazkiak eta ikasleek sortutako materialen irudiak informazioaren lagungarri izanik, (Ikus Eranskinak).

**Prozedura:**

Buletina egitearen ardura ARTELATZ, enpresak eraman zuen aurrera, beti ere Udal ordezkarien lankidetzaz.

Ikastetxe bakoitzean, Eskolako Agenda 21eko arduradunarekin bilera batean, beraien ekintza zehatzen informazioa jaso genuen. Ekintza hauen tenporalizazioa ezagutuz, jardueren arabera, argazki desberdinak aterako genituzke.

Hurrengo urratsa, lortutako informazio eta material guztiarekin buletinaren behin behineko aurkibidea egituratzea izan da, buletinaren lehen bozetoa diseinatuz. Bertan ikasleen parte hartzea ahalik eta handiena gertatzearen apustua egitea beharrezkoa da (adibidez, Udal Foroaren berri emateko atalean).

Lehen bozetoa ikastetxeetako partaideen esku utzi ondoren, beste bilera orokor batean moldapenak eta ekarpenak jaso ziren, azken zuzenketak egin eta buletina inprentara bidaltzeko. Herri bkoitzeko postontzi guztietan uzteko erabakia hartu zen,



**ERANSKINAK:**

1. Lan fitxak
2. Kontsumo tailerrei buruzko memoria